



Honako idazkide bñhoz berrn transferako
Sallera
Pasa el presente escrito al Negociado de
Secretaria
Alcaide para su trámite
LASARTE-ORIA 2010-08-02
IDAZKARI OROKORRAK

LASARTE-ORIARENTZAT BIDEGORRI SARE EGOKI BATEN ALDEKO MOZIOA

Gaizki ulertutako garapen ekonomikoaren ondorioz, inguruko hiri eta herriguneekeko isolatuta geratu ginen Lasarte-Oriako oinezko eta bizikleta erabiltzaileok: ez zegoen modu seguru, osasuntsu, eta ingurumenarekiko arduratsu eta jasangarri herritik ateratzeko. Nahi edo ez, ibilgailu motorizatua erabiltzeko beharra zegoen. Une honetan, aldiz, Luzuriaga eta Lasarte-Oria lotzen dituen zatiaren lanen bukaerarekin lasarteoriatarren aspaldiko isolamendu horri zirrikitu bat ireki zaio. Donostiarako lotura eskura dugu orain, egunerokoan erraz erabiltzeko moduan. Eta horrela ari da gertatzen, ikusi besterik ez da egin behar zenbat eta zenbat oinezko eta txirrindulari dira egunero bidegorrian barrena.

Donostia - Lasarte-Oria lotura honek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Araua du jatorri, eta 2013eko ekainean, aho batez, Aldundiak behin-betiko onartutako Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarean kokatzen da. Sarearen helburuen artean, Lurraldearen Arloko Planak ondoko hauek aipatzen ditu, besteak beste: Gipuzkoako lurralde historikoa artikulatzea, oinezko eta bizikleta bidezko zirkulazioa areagotzeko; konektagarritasun, segurtasun eta erosotasun baldintzak hobetzea oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorrietan, horrela desplazatzeko modurako aukerak aniztuz; edota garraio moduen egungo banaketan eragitea, bizikletaren eguneroko erabilera bultzatuz. Aipatutako helburu hauek, eta aipatu zitezkeen beste batzuk ere, erabateko intzidentzia daukate gure herrian.

Buruntzaldea eskualdeko artikulazioari dagokionez, euskara, kirola edota baita garapen sozioekonomikoaren arloetan ere, adibidez, loturak badaude dagoeneko. Motorrik gabeko mugikortasunaren ikuspegitik, ordea, herri isolatua jarraitzen du izaten Lasarte-Oriak. Mugikortasunaren ikuspegitik, Usurbilekin dagoen derrigorrez pasa beharreko Txikiardiko lotura guztiz arriskutsua da, benetako puntu beltza da, eta horren adibide hurbila dugu duela pare bat hilabete Troian hildako gizonezkoa, auto batek harrapatuta. Bidegorrien Sarean marrazten den Errekaldetik Galarreta eta Hernanirako lotura marra bat planoan baino ez da, oraindik pendiente dagoen Errekaldeko igogailuaren koxka ahaztu gabe. Andoainerako kasuan, Donostialdeko Lurralde Zatikako Planak A-1 errepidetik aurreikusten duen bidegorriak aukera berriak irekiko zituen, baina ideia baino ez da momentuz. Lotura hauek gauzatuz gero, ez bakarrik Lasarte-Oriak, Buruntzaldeko eskualde osoak irabaziko zuen.

Aisialdiaren ikuspegitik, bestaldetik, Foru Aldundiaren Bizikleta Bideen Planak bi ardatz nagusi aurreikusten ditu gure inguruan. Batetik, Donostia-Usurbil-Mutriku, kostako bidetik barrena. Eta bestetik, Donostia-Andoain-Beasain, Urumea bailaratik barrena. Bi ardatz hauek arteko lotura soil-soilik Lasarte-Oriatik eta Plazaolako bidegorritik izango zirelarik.

Baina ez da herriarteko mugikortasun jasangarria bakarrik, baita herribarnekoan ere gauza asko egiteke daude. Hala jasotzen da, adibidez, 2015. urtean Lasarte-Oriako Udalak eskatutako "Lasarte-Orian Aparkaleku" azterketaren konklusioetan: "herrian dagoen aparkatzeko arazoari dagokionez, (...) interesgarriago hartzen dugu herribarneko bizikletaren bidezko mugikortasuna sustatzea, periferian dauden auzo eta ekipamendu gehienak kokatuta dauden erdigunearen artean; horrek aparkaleku eskaera murrizten lagundu zezakeen". Eta hiru ardatz aipatzen zituen zehazki:

- Ori ibaiaren Erribera. Oriako zonalde erresidentzialetik Zumaburu kalerainoko irisgarritasuna hobetuz, batetik; eta Erribera kalean ematen etendurari irtenbidea emanaz, bestetik.
- Zabaletaberri, Irubide biribilgunea, Goiegi urbanizazioa eta Zabaleta aldapako biribilgunearen lotura Tajamar biribilgunearekin.
- Urbarte, EuskoTreneko Geltokia eta Hipódromoko Etorbidea. Orain bukatu berri den loturarekin osatuta geratzen dena.

Aurreko guztiak kontutan hartuta, Lasarte-Oriako Udal Batzak honako akordioak hartzen ditu:

1.- Herribarneko mugikortasun jasangarriaren arloan dauden hutsuneak gainditze aldera, Lasarte-Oriako Udalari herriko bidegorrien sarea osatuko duen proiektua egitea eskatzen zaio, prozesu parte-hartzaile bat eginda eta herritarren iritzia entzun ondoren.

2.- Modu berean, herriarteko mugikortasun jasangarriaren arloan Lasarte-Oriak dituen hutsuneak gainditu eta Buruntzaldea eskualdea artikulatze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarean aurreikusten diren inguruko herriekiko bidegorrien loturen proiektuak egitea eta modu mailakatuan gauzatzea eskatzen zaio, proiektu parte-hartzaileak eginda eta eragindako herritarren iritzia entzun ondoren honetan ere.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea.

EH Bildu Udal Taldearen izenean

Lasarte-Orian, 2016ko abenduak 2an